

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

411/2018 Foru Agindua, ekainaren 27koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatuarena. 203 eta 223 ereduak onestea, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuena, eta eredu horiek telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak ezartzea

Martxoaren 7ko 2/2008 Foru Arauak, artikulua berri bat sartu du, 130 bis izenekoa, 37/2013 Foru Arauan (abenduarien 13koa, sozietateen gaineko zergarena), 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan eragina izateko. Arau horrek arautzen du ordainketa zatikatuena.

130.bis artikulua berri horren arabera, urtero urriaren lehenbiziko 25 egunetan, sozietateen gaineko zergaren peko zergadunek autolikidazioa egin beharko dute, eta ordainketa zatikatu bat egin urriaren lehen egunetan abian den zergaldiari dagokion likidazioaren kontura. Hala ere, ez dute ordainketa zatikatu hori egin beharrik izango sozietateen gaineko zergaren foru arau horren 13. artikuluan ezarritako arabera mikroenpresa edo enpresa txiki jotzen diren entitateek, ez eta ere foru arau horren 56. artikuluan 4. eta 5. apartatuetan ezarritako zerga tasaren arabera tributatu beharra dutenek.

Era berean, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arau horrek 23.bis artikulua berri bat sartu du 16/1997 Foru Arauan (ekainaren 9koa, kooperatiben zerga araubideari buruzkoa), eta, beraren arabera, ordainketa zatikatu hori egin beharko dute kooperatibek, salbu eta sozietateen gaineko zergaren araudiaren arabera mikroenpresa edo enpresa txikitzat hartuak izateko betebeharrak betetzen dutenek.

Tributu betebeharrak berri honek berekin dakar sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren autolikidazio eredu berri bi onetsi beharra, hain zuzen, 203 eredu eta 223 eredu.

203 eredu telematikoki baino ezin da aurkeztu, eta bi zerga horien zergadunentzat da, betiere talde fiskalak ez badira, Araban tributatu badute eta EAeko lurralde historikoetako edozeinen araudiaren pean badaude.

223 eredu ere telematikoki aurkezten da, eta talde fiskalentzat da, kooperatiba taldeak barne, betiere Araban tributatu badute 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VI. kapituluaren eta 16/1997 Foru Arauaren VI. tituluaren arautzen den araubide bereziaren arabera, eta lurralde historikoetako edozeinen araudiaren pean badaude.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusirik,

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 203 eta 223 autolikidazio ereduak onestea

Bat. 203 eredu onestea, zeina aitorpen-likidazio bat baita, sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuarena eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuarena, adituko delarik ez-egoiliarra dela establezimendu iraunkorra eta errentak eratxekitzeko araubidearen peko entitate atzerrian eratu eta Arabako lurralde historikoan ari dena ; foru agindu honen I. eranskinean dator jasota eredu.

Bi. 223 ereduaren onestea, zeina aitortzen-likidazio bat baita, sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuarena eta talde fiskal baten ordezkari diren entitateei dagokien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuarena, betiere talde fiskal horrek 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VI. kapituluaren araututako araubide bereziaren pean tributatzen badu, eta 16/1997 foru Arauaren VI. tituluaren arautzen diren kooperatiben ordezkari diren entitateak ere barne direla; foru agindu honen II. eranskinean dator jasota ereduaren.

2. artikulua. 203 eta 223 ereduak aurkezteko betebeharrak

203 ereduaren nahitaezkoa da sozietateen gaineko zergaren peko zergadunek eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren peko zergadunek ordainketa zatikatu egin nahi badute (aditzen delarik ez-egoiliarra dela establezimendu iraunkorra eta errentak eratzekitzeko araubidearen peko entitate atzerrian eratua), alegia, 37/2013 Foru Arauaren 130.bis artikuluan (abendua-ren 13koa, sozietateen gaineko zergari buruzkoa) eta 16/1997 Foru Arauaren 23.bis artikuluan (ekainaren 9koa, kooperatiben zerga araubidearena) jasota datorren ordainketa zatikatu, eta, betiere, itun ekonomikoan ezarritako arauen arabera ordainketa zatikatu horren autolikidazioa aurkeztu behar badute Arabako lurralde historikoan, eta, betiere, lurralde historikoetako edozei-nen araudiaren pean badaude.

Alabaina, ordainketa zatikatuaren 203. ereduaren ezingo dute erabili talde fiskalek, ezta koope-ratibek ere, baldin eta 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VI. kapituluaren (37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, sozietateen gaineko zergarena) eta 16/1997 Foru Arauaren VI. tituluaren eza-rritako zerga araubide bereziaren pean tributatzen badute (16/1997 Foru Araua, ekainaren 9koa, kooperatiben zerga araubideari buruzkoa); horiek, beti, 223. ereduaren erabili beharko dute.

3. artikulua. 203 eta 223 ereduak aurkeztea

203 eta 223 ereduak ezingo dira aurkeztu ez denean egin behar ordainketa zatikatu gisako diru sarrerarik dagokion aldirian.

4. artikulua. 203 eta 223 ereduak aurkezteko modua

Bat. 203 eta 223 ereduak dagozkien autolikidazioak nahitaez aurkeztu behar dira telematikoki.

Bi. Arabako araudiaren peko entitate eta talde fiskalak:

Arabako araudiaren arabera tributatzen duten entitate eta talde fiskalek 203 ereduaren edo 223 ereduaren arabera –zein dagokien– osatuko dute beren autolikidazioa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak garatutako “zerga ereduak” laguntza programaren bidez, eta nahitaez aurkeztu beharko dute autolikidazio hori, telematika bidez, “AldundiDigitala” egoitza elektro-nikoaren bidez (aurrerantzean “AldundiDigitala”).

Laguntza programa Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik (www.araba.eus) deskargatu daiteke eta, beraren bidez, lehenbiziko artikuluan onetsitako ereduak eskuratu ahal izango dira.

Hiru. Bizkaiko edo Gipuzkoako araudiaren peko entitateak eta talde fiskalak:

Bizkaiko edo Gipuzkoako araudiaren arabera tributatzen duten entitateek eta talde fiskalek 203 ereduaren edo 223 ereduaren arabera –zein dagokien– osatuko dute beren autolikidazioa, araudiaren arabera eskumena duen tributatu administrazioak garatutako informatika bitartekoak erabiliz, eta, betiere, nahitaez telematikoki helaraziz, “AldundiDigitalaren bidez”, horrela esku-ratutako fitxategiak.

5. artikulua. 203 eta 223 ereduak Internet bidez telematikoki aurkezteko prozedura

203 eta 223 ereduaren aurkezpen telematikoa 39/2010 Foru Aginduaren 3. artikuluan eza-rritako prozedurari jarraituz egingo da. Agindu horren bidez ezarri ziren zergapeko eta eredu jakin batzuen kasuan aurkezpena Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura.

Zehazki:

1. Aitortzaileak Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bateratuan sartuta egon behar du aitortpena aurkeztu aurretik, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2. Aitortzaileak edo, hala dagokionean, borondatezko ordezkariak, "AldundiDigitala" web-guneko zerbitzuak erabiltzeko baldintzak bete beharko ditu, 26/2011 Foru Dekretuak (apirilaren 5ekoa, Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa sortu zuena; 74/2011 Foru Dekretu azaroaren 29koaren bidez aldatua) ezarritakoarekin bat etorritik.

6. artikulua. Ordainketa zatikatua aurkezteko epea

Sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua (adituko delarik ez-egoiliarra dela establezimendu iraunkorra edo errentak eratxekitzeko araubidearen peko entitate atzerrian eratu eta Arabako lurralde historikoan ari dena) 203 ereduaren edo 223 ereduaren bitartez egingo da –zein dagokion–, urte bakoitzeko lehenbiziko hogeitabost egunetan zehar.

7. artikulua. Aurkezteko lekuak eta ordaintzeko erak

203 eta 223 ereduaren bitartez egiten diren autolikidazioak nahitaez helarazi beharko zaizkio telematikoki Foru Ogasun honi, "AldundiDigitalaren" bidez, Foru Agindu honetan azaldutako eran.

Arabako araudia aplikatuz gero, eta entitate baten aitortpenaren emaitza (203 eredu) edo talde fiskal baten aitortpenaren emaitza (223 eredu) kuota bat sartu beharra bada, bi modu hauetako batean egin beharko da ordainketa:

1. Banku helbideraketa bidez ordaintzea. Horrelakoetan, finantza erakundea erakunde laguntzailea izan beharko da otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2. EAeko Administrazioaren ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea.

3. Arabako Foru Aldundiak jaulkitako ordainketa gutun baten bidez ordaintzea, aitortpena epe barruan aurkezteko garaian.

Bizkaiko edo Gipuzkoako araudia aplikatuz gero, eta entitateek 203 ereduaren arabera egindako aitortpenaren emaitza kuota bat ordaintzea bada, banku helbideratzearen bidez egin beharko dute ordainketa, eta, kasu horretan, hautatutako finantza erakundeak erakunde laguntzailea izan beharko du, otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Kuota positiboak ordaintzeko geroratzea, zatikatzea edo konpentsazioa eskatuz gero, eskabidea aurkezteko epea izango da 203 eta 223 ereduak aurkezteko seigarren artikuluan ezarrita dagoena. Arabako araudiaren peko entitate eta talde fiskalek laguntza programaren bidez eskatuko dituzte geroratzea eta zatikatzea.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

39/2010 Foru Agindua aldatzea, otsailaren 3koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailko foru diputatuarena, baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen zergapeko jakin batzuentzat eta eredu jakin batzuetarako, aurkezpenera Internet bidez modu telematikoan egin behar denerako.

Otsailaren 3ko 39/2010 Foru Arauko 1. artikuluko lehen apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"Bat. Foru Agindu hau zerga aitortpen hauetan aplikatuko da:

Urteko laburpenak eta aitortpen informatiboak:

– 180 eredu (Urteko laburpena, hiri higiezinaren errentamenduaren etekinen gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerena).

- 182 eredia (aitorpen informatiboa, jasotako emari, dohaintza eta ekarpenena eta egindako xedatzeena).
 - 184 eredia (urteko aitoren informatiboa, errenta eratxekitzeko araubidepeko erakundeena).
 - 190 eredia (Urteko laburpena, laneko etekinen, jarduera ekonomiko jakin batzuen eta sarien etekinen gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerena).
 - 193 eredia (Urteko laburpena, kapital higigarriaren etekin batzuen eta errenta batzuen gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerena).
 - 194 eredia (urteko laburpena, kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerena eta inoren kapitalak atzitu eta erabiltzea ordezkatzan duten edozein eratako aktiboen eskualdaketa, amortizazio, itzulketa, trukaketa edo bihurtetaren ondoriozko errenten gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerena).
 - 340 eredia (eragiketen aitortpena, balio erantsiaren gaineko zergaren araudiaren 62.1 artikuluan aipatzen diren erregistro liburuetan sartuta daudenena).
 - 347 eredia (urteko aitortpena, hirugarrenekin egindako eragiketena).
 - 349 eredia (laburpen aitortpena, Europar Batasunaren barruko eragiketak laburbiltzen dituenena).
 - 296 eredia (Urteko aitortpena, atxikipen eta konturako diru-sarrerena).
 - Errolda eredia, balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroko alta eta bajena.
 - 232 eredia (aitorpen informatiboa, loturiko eragiketei buruzkoa eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei. buruzkoa).
- Autolikidazioak:
- 110 eredia (Aitorpen-likidazioa, laneko etekinen, jarduera ekonomiko jakin batzuen eta sarien etekinen gaineko atxikipen eta konturako diru-sarrerengatik).
 - 111 eredia (Aitorpen-likidazioa, laneko etekinen, jarduera ekonomiko jakin batzuen eta sarien etekinen gaineko atxikipen eta konturako diru-sarrerengatik –enpresa handiak-).
 - 115-A eredia (Aitorpen-likidazioa, hiri higiezinaren errentamenduaren etekinen gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerengatik).
 - 117 eredia (Autolikidazioa, zenbait errenta edo ondare irabaziren gaineko atxikipen eta konturako diru sarrerengatik).
 - 123 eredia (Aitorpen-likidazioa, kapital higigarriaren etekin jakin batzuen gaineko atxikipen edo konturako diru sarrerengatik).
 - 200 eredia (aitorpen-likidazioa, sozietateen gaineko zergarena eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, alegia, ez-egoiliarrek direlarik establezimendu iraunkorrek eta atzerrian eratu eta Arabako lurralde historikoan ari diren entitate errentak eratxekitzeko araubidearen pekoak).
 - 220 eredia (aitorpen-likidazioa, kontsolidazio fiskaleko araubide pean dauden sozietate nagusiei eta entitate taldeburuei dagokien sozietateen gaineko zergarena).
 - 303 eredia (autolikidazioa, balio erantsiaren gaineko zergarena).
 - 310 eredia (Araubide erraztua. Balio erantsiaren gaineko zergaren hiruhileroko aitortpena).
 - 322 eredia (Entitate multzoa. Banakako eredia. Balio erantsiaren gaineko zergaren hileroko autolikidazioa).

- 353 eredia (Entitate multzoa. Eredua agregatua. Balio erantsiaren gaineko zergaren hileroko autolikidazioa).
- 390 eredia (Balio erantsiaren gaineko zerga, araubide orokorra: urteko aitortpen-likidazioa eta araubide berezien eranskina).
- 391 eredia (Araubide erraztua. Urteko aitortpen-likidazioa, balio erantsiaren gaineko zergarena).
- 581 eredia (autolikidazioa, hidrokarburoen gaineko zergarena).
- 582 eredia (autolikidazioa, hidrokarburoen gaineko zergarena).
- 203 eredia (Autolikidazioa, sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua, alegia, ez-egoiliarrek direlarik establezimendu iraunkorrak eta atzerrian eratu eta Arabako lurralde historikoan ari diren entitate errentak eratzekitzeko araubidearen pekoak).
- 223 eredia (Autolikidazioa, sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua, alegia, ez-egoiliarrek direlarik kontsolidazio fiskalaren araubidearen pean tributatzen duten talde fiskalak).

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta 2018ko urriaren lehenbiziko 25 egunetan egin beharreko ordainketa zatikatuari aplikatuko zaio lehenbiziko aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 27a


Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ


Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTINEZ

**ERANSKINA, SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ETA EZ-EGOILIARREN
ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO ORDAINKETA ZATIKATUEN
203 ETA 223 EREDUAK ONESTEN DITUEN FORU AGINDUARENA**

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos</p>	<p>ORDAINKETA ZATIKATUA</p> <p>Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak)</p>	<p>EREDUA</p> <p>203</p>			
Erakunde aitortzailea					
IFZ	Sozietatearen izena	Telefonoa			
Aurkezlea					
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena				
Harremanetarako pertsona					
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	Telefonoa			
Helbide elektronikoa					
HELBIDERATZEA					
INTERNET BIDEZKO ORDAINKETA:					
	Dirubilk. proz. kodea	Erakunde jaukitzailea			
	Erreferentzia	Identifikazioa			
Zerga zorraren ordainketa zatikatzea	<input type="checkbox"/>	Sartutako zenbatekoa			
Zerga zorra konpentsatzea	<input type="checkbox"/>	Ordaindu beharreko zenbatekoa			
Ekitaldia		Zergak Estatuari/Aldundiei/Nafarroako Foru Komunitateari ordaintzea			
Zergaldiaren hasiera data	80 / ... / ...	Arabako LHko arautegia			
Aitorpen ordezkioa	81	Aurreko aurkezpen zenbakia			
Azken zergaldiko zerga oinarria (37/2013 FAre 130. bis. artikulua)	01				
Ordainketa zatikatuaren ehunekoa	02	5%			
Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa	03				
Azken zergaldiko atxikipenak eta konturako sarrerak	04				
Diferentzia	05				
Azken zergaldian Arabako Lurralde Historikoan egindako eragiketen ehunekoa (37/2013 FAre 130. bis. artikulua)	06				
Sartu beharreko kuota	07				
Aurreko aitopenaren arabera sartu beharreko zenbatekoa	08				
Errekargua	09				
Berandutze korrituak	10				
SARTU EDO ITZULI BEHARREKO LIKIDOA	11				
ZERGAK ARABAKO FORU ALDUNDIARI ETA BESTE FORU ALDUNDIEI, NAFARROARI ZEIN ESTATUARI ORDAINITZEA					
	Lurralde erkidea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroako FK
Azken zergaldiko eragiketen zenbatekoa	21	31	41	51	61
Azken zergaldiko eragiketen ehunekoa	22	32	42	52	62
Sartu beharreko kuota	23	33	43	53	63
Aurreko aitopenaren arabera sartu beharreko zenbatekoa	24	34	44	54	64
Errekargua		35			65
Berandutze korrituak		36			66
SARTU EDO ITZULI BEHARREKO LIKIDOA	27	37	47	57	67

Aurkezpen telematikoa

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p><small>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos</small></p>	<p>ORDAINKETA ZATIKATUA</p> <p>Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga</p> <p>Zerga baterakuntzako erregimena</p>	<p>EREDUA</p> <p>223</p>			
Erakunde ordezkaria					
IFZ	Sozietatearen izena	Taldearen zk. 86	Telefonoa		
Taldekoez ez den erakunde nagusiaren identifikazioa					
IFZ 87	Sozietatearen izena 88	R/X 89	Probintzia/Hernalde kodea 90		
Aurkezlea					
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena				
Harremanetarako pertsona					
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena		Telefonoa		
Helbide elektronikoa					
HELBIDERATZEA					
INTERNET BIDEZKO ORDAINKETA					
		Dirubilk. proz. kodea	Erakunde jaukitzailea		
		Erreferentzia	identifikazioa		
Zerga zorraren ordainketa zatikatzea	<input type="checkbox"/>	Sartutako zenbatekoa			
Zerga zorra konpentsatzea	<input type="checkbox"/>	Ordaindu beharreko zenbatekoa			
Ekitaldia		Zergak Estatuari/Aldundiei/Nafarroako Foru Komunitateari ordaintzea	85		
Zergaldiaren hasiera data	80	Arabako LHko arautegia	84		
Aitorpen ordezkaria	81	Aurreko aurkezpen zenbakia	9961		
Azken zergaldiko zerga oinarri bateratua (37/2013 FAREN 130. bis. artikulua)	01				
Ordainketa zatikatuaren ehunekoa	02	5%			
Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa	03				
Azken zergaldiko atxikipenak eta konturako sarrerak	04				
Diferentzia	05				
Azken zergaldian Arabako Lurralde Historikoan egindako eragiketen ehunekoa (37/2013 FAREN 130. bis. artikulua)	06				
Sartu beharreko kuota	07				
Aurreko aitorpenaren arabera sartu beharreko zenbatekoa	08				
Errekargua	09				
Berandutze korrituak	10				
SARTU EDO ITZULI BEHARREKO LIKIDOA	11				
ZERGAK ARABAKO FORU ALDUNDIARI ETA BESTE FORU ALDUNDIEI, NAFARROARI ZEIN ESTATUARI ORDAINTEA					
	Lurralde erkidea		Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroako FK
Azken zergaldiko eragiketen zenbatekoa	21	31	41	51	61
Azken zergaldiko eragiketen ehunekoa	22	32	42	52	62
Sartu beharreko kuota	23	33	43	53	63
Aurreko aitorpenaren arabera sartu beharreko zenbatekoa	24	34	44	54	64
Errekargua		35			65
Berandutze korrituak		36			66
SARTU EDO ITZULI BEHARREKO LIKIDOA	27	37	47	57	67

Aurkezpen telematikoa

